

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Hezkuntza Zerbitzua

Hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jardueretarako dirulaguntzak ematea, 2026-2027 ikasturtean

2026ko uztailaren 9ko Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi delegatuaren ebazpenaren bidez, hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jardueretarako 2026-2027 ikasturteko dirulaguntzak ematea onartu da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan xedatutakoaren ildotik, hau argitaratzen da, denek jakin dezaten:

Hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jardueretarako dirulaguntzak ematea onartzea, 2026-2027 ikasturtean

2026ko apirilaren 15ean argitaratu ziren, ALHAOn, hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jardueretarako dirulaguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarriak, 2026-2027 ikasturtea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 27an egin-dako ohiko bilkuran onetsiak. Deialdiaren laburpena 2026ko apirilaren 15eko ALHAOn argitaratu zen, eta hortik aurrera hasi zen kontatzen eskabideak aurkezteko epea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Vitoria-Gasteizko Udala-ren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrean ezarritakoa aplikatuz, ordenantza hori Udala-ren Osoko Bilkuran onartu zen, 2023ko apirilaren 21eko ohiko bilkuran, balorazio-organoa bildu da, eta deialdi horretara aurkeztutako eskabideei buruzko dirulaguntzak emateko eta ukatzeko proposamena egin du.

Kontuan izanik indarrean dagoen gastuen aurrekontuan nahikoa zuzkidura badagoela 2026ko udal aurrekontuko Kultura eta Hezkuntza Sailaren 2319 03 3261 48175 partidaren, Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkariak, dirulaguntzen arloan eskumenak eskuordetzeari buruzko 2025eko maiatzaren 16ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiak ematen dizkion ahalmenak erabiliz, eta deialdiaren oinarri espezifikoaren 10. klausularen arabera, honako ebazpena ematen du:

1. Erantsitako I. eranskinean zerrendatutako dirulaguntzak onartzea eta ematea bertan zehazten diren elkartei, 2026-2027 ikasturterako. Dirulaguntzaren zenbatekoa 20.000,00 eurokoa izango da, Kultura eta Hezkuntza Sailaren 2319 03 3261 48175 partidaren kargura.

2. Erantsitako II. eranskinean zehazten den elkarteari 2026-2027 ikasturterako eskatutako dirulaguntza ukatzea, bertan adierazitako arrazoiengatik.

3. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa bi zatitan ordainduko da: lehenengo ordainketa, 10.176,00 eurokoa, 2026rako udal-aurrekontuko 2319 03 3261 48175 aurrekontu-partidaren kargura egingo da; eta bigarren ordainketa, 9.824,00 eurokoa, 2027rako udal-aurrekontuaren kargura, betiere horretarako bideratutako aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa badago.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta egintza berariaz edo ustez ebatzi arte. Jarraian, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, edozein unetan jarri ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko uztailaren 9an

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA

I. ERANSKINA: ONARTUTAKO ESKABIDEAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZA

ERAKUNDEAK	IFZ	DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA	LEHENENGO ORDAINKETA 2026	BIGARREN ORDAINKETA 2027
AEMAR Asociación Esclerosis Múltiple de Araba	G01123835	3.496,75 €	1.779,15 €	1.717,60 €
ASPACE Asociación de Parálisis Cerebral	G01100130	4.282,50 €	2.178,93 €	2.103,57 €
ASPASOR Asociación de Padres, Madres y Amigos de las Personas Sordas de Álava	G01025535	4.064,50 €	2.068,02 €	1.996,48 €
ISABEL ORBE Asociación Síndrome de Down Álava	G01171693	4.173,49 €	2.123,47 €	2.050,02 €
EGINAREN EGINEZ Asociación de Personas con Discapacidad Física de Álava	G01027275	3.982,76 €	2.026,43 €	1.956,33 €
GUZTIRA		20.000,00 €	10.176,00 €	9.824,00 €

II. ERANSKINA: UKATUTAKO ESKABIDEA

ERAKUNDEA	IFZ	UKATZEKO ARRAZOIA
ASOCIACIÓN DE ALTAS CAPACIDADES INTELECTUALES DE ÁLAVA "AACIÁ"	G27561042	ERAKUNDE EZ-HARTZAILEA
		4. atala - Laguntza hauen deialdiaren oinarriak: "Desgaitasun batek edo jokabide-nahaste larriren batek eragindako hezkuntza-premia berezien eremuko elkarteei zuzenduta dago"
		AACIÁ Elkartek, bere Estatutuetan jasotakoaren arabera, ez die erantzuten deialdiaren irizpideei, Hezkuntza Laguntzako Behar Espezifikoek erantzuten dielako eta ez, bereziki, desgaitasun edo nahaste larri baten ondoriozko Hezkuntza Premia Bereziei